



Taula gainean zein bizian gaztaroa ehortzen ari den aktore baten konfesioa, nahiz eta punk kukurusta oraindik jalgitzen zaion, artetan. Lana ametsen ildora egokitzen du.

Ximun Fuchs

«Gaztaroan, sari baten dirutza gauean berean xahutuko nuen»

Xan Aire

Mikrorik ez delarik, *Erraustak* antzerkia «astakeria» dela dio Ximun Fuchs (1974, Larzabale, Nafarroa Beherea). «Astakeria», «basakeria» zentzuan. Alla, antzezlan horrek Donostia Antzerki saria gaur bertan jasoko du. Bigarren aldiz izanen da Fuchsentzat, *Jagla ea, puta eta eroa* lana ere hola-hola saritua izan baitzen 2006an. Baina Le Petit Theatre de Pain taldeko aktore-jadantik geroz oroi dago, euskal antzerkia aitzinazat beharrez.

Hara, astakeria bat saritua... Harritu zaitu?

Bai eta ez... Arrakasta ona ukan du antzerkiak. Nik lehen aldikoz bizi izan dut Euskal Herria guzian arrakasta, antzerkiak besteak... Harrokeria hutsa da, baina euskaldun antzerki herriko baten itzulia bizitzeko sentipena dugu. Jendeari mintzatu zaio, hasteko.

Diskurtsobat prestatu duzu?

Ez! Gure ideia da Unai Iturriagak eta

Igor Elortzak saria eskuratzea, testua idatziz baitute eta diskurtso kantatuzaren profesionalak beira...

Eta antzerkilariak?

Gu, bufoiak gara! Dario Foren ildotik, ni bai behintzat. Gauza serioak aipatu, geure buruak ez sobera serioak hartzen saiatzen gara. Gure harrokeria ere dugu... Erran nahi ditugunik antzerkian egiten ditugu.

Zeremoniak ez dira antzerkiak?

Beharrezkoak dira, zerbeit ofizialtzen du... Euskal antzerkian sariak ukaitiak aitzina egiten laguntzen du zure lana, Terrenoko lana da inportantena. **Zu, halako anarkista; sariak onartzen dituzu?**

Kontrahandistak gara... Izpiritu horretan naiz, behintzat. Ezohiko ogibidea dut, baina bizi normala ere bai. Alokairua ordaintzen dut; beraz, dirua onartzen dut. Eta hor, sariak dakarren dirutza inbertituko dugu. Adibidez, *Jagla ea, puta eta eroa* lanaren sariak *Erraustak*ekoizten lagundu du. Ez dut

uste sariak euskal antzerkiaren egoera konpontuko dutela, baina, bitartean, laguntzen dute.

Diru aldetik soilik?

Ez, saritua den antzezlan aipatua da. Kazetariak heldu zaizkigu, eta publikoak ere ezagutzen du. Baina antzerkilaria euskaraz bizitzeko giltza politikana da.

Zuen antzerki taldea geroz eta baldintza hobetan ari da...

Bai. Duela hamazazpi urte hasi ginen, hala ere. Gaur onartuak gara, baina hastapenean ukan ditugun erantzunak... Ez girela haien buru kaxetan sartzen, edo zinezko ofizio bat bilatzea hobe gurela entzan dugu! Botere publikoak guri interesatzen hasi dira beren interesa ikusi dutenean. Ez gara agintarien seme-alabak...

Mundua aldatu nahi zuen belaunaldiaren haurrak zarete...

Bai, eta *Erraustak* antzezlaneko gata hori da: zer gara, eta zer bilakatu gara? Bertzeak ikusten ditugu, aspaldiko la-

gunak, eta seko izutzen gara! Hain nola gogendu den, eta abar...

Eta zu?

Hori da antzerkiko bigarren galdera... Nire lagunak ez ote dira, azken finean, nire mirala?

Zertan zara zeure gaztaro ilusloekin?

Lehenik, erran behar dut. Euskal Herrian, gurasoek iraultzarako sena transmititu dutela. Frantzia, konparazione, horrokalari handienak zer dira, ekologistak? Hemen, gaztaroan, Hertzainak, Itoiz, Kortatu taldeen doinueta besarkatu gara, lehen porroak erre ditugu...

Baina zer bilakatu zara zu?

Ez dakit erantzuten ahal dudan. Egiten badut, *Erraustak* lanari kasik zentzua ematen diot. Gure antzerkian, ordea, klizeak hartu ditugu. Bata da sorterritik magutu ez dena; bestea, etretik kanpo egon dena beti. Edo bada euskaldun fedelena, eta euskaltasuna gehiago jasaten ez duena. Bada hipotekatua, zozrez bete, lanez itoa. Eta gaztaroetik honat aitzinatu ez dena. Nik denetan pikatut kokatzen dut neutro burua.

Eta gaztaroa ehortzen duzue... Bizierrealan lan hori bete duzu?

Ez dut uste. Horren galderan naiz. Haurrak egiterakoa badira bi gauzak: lehenik bizia ematen da, eta heriotzaren galdera heldu da ondotik. Bat-batean, nonbait gauza batzuk ehortziki ditut. Erran nahi dut badakidala hilen naizela. Eta hori duela guti ikasi dut, kontzienteki.

Ez da nerabatasunean egiten hori?

Baina ni, gaztaroan, *sex, drugs and rock-and-roll* munitzen! Geroako gero! Hor oharitzen naiz antzerkilariek beren haurkeriak kontzen dituztela. Ingurua begiratzen hasi naizelarik, total deskonektatua nintzela ikusi dut! Gure artista bizimoldoak ere eragiten du.

Sariak eta arrakasta mundialak ukan bazenito hamazazpi urtetan, nola hartuko zenituen?

Ez dakit; ez dut irudikatzen ahal. Kata-kombetako artistak gara. Ez dugu zinemako distirarik. Edo telebistakorik. Baina hobe, koka baizik ez baita telebistara.

Hara...

Gaztaroa punk kukurusta atera zait hor; kasu egin behar dut! Baina, gisa guztiz, hamazazpi urtetan ez nuen sariarik ukamen. Rock-and-rollorietan bizitzari baizik ez nuen pentsatzen. Gaztaroan, sari baten dirutza seguraski gauean berean xahutuko nuen. Nire ametsak ez dira diruaren inguruan josiak. Le Petit Theatre de Pain taldeko helburua beti izan da gure lana pentsatzea gure ametsen ildora. Ez dugu lortzen, baina horretatik burbiltzen saiatzen gara.

